



BARREN

TOKIKOM



Kulturaren sarean

INFORMAZIO SAIO
PRESENTZIALAK

MAIATZAK 29

GOI ETA ERDI MAILAK

- DISEINUA
- PRODUKZIOA
- MEKATRONIKA/MANTENTZEA

EMAN IZENA!
www.imh.eus/zikloak



Azkie auzoa, 1 Elgoibar (Gipuzkoa) • zikloak@imh.eus • 943-74 82 65

TXAPELA
HITZALDIA
2021/05/22a larunbata

Txapela XIX. mendean.
Hizlaria: Mikel Alberdi Sagardia historialaria
Ordua: 12:00etatik 13:00etara.
Lekua: Makina Erremintaren Museoa. Leku kopuru mugatua. Izena eman behar da 2021-05-21a baino lehen. Sarrera: 4 €. Euskaraz.

Antolatzailea



www.museoa.eus
museoa@ museoa.eus
T. 943 748 456

Kolaboratzaileak



ALEX SEGADE

Ikaslea



Autobien kontua

hiru, hurrengoan bost... AP-8arekin egiten den bezalaxe, urtero garestiagoa. Unibertsitarera autoz joaten hasi nintzenean, orain dela hiru urte, Elgoibartik Bilborainoko tartea lau euro eta zerbait kostatzen zen. Aurten, tarte bera egiteagatik sei euro eta erdi kobratzen dute.

Arazoa ez da autobiak ordainpekoak izatea, autobiak kobratzen hastea baizik. Hortik aurrera prezioak gora egingo dute. Jaitsi ez dira jaitisiko, hori argi dago, eta xentimo hori mugitu gabe ez da geratuko. Ordainketa berri

hau kontserbazio eta mantentze-lanetarako dela diote, baina ez dakit zer sinetsi. Autopista asko ez daude oso ondo kontserbatuta eta zainduta, eta ordaintzen dira. Egia da autobiak, doakoak izanik, egoera nahiko txarrean daudela. Hala ere, neurri honen funtsezko helburua dirua biltzea besterik ez da. la Europa osoan jada ordaintzen dira autobiak eta Espainia ez da gutxiago izango.

Zorionez, neurriak izan duen onarpen eskasak atzera bota dezake Gobernuaren asmoa eta lege bidez ezarri behar denez, Kongresuan bozkatu beharko dute. Momentuz, alderdiek ez dute legea begi onez ikusi eta aukera gutxi daude aurrera egin dezan. Ikusi beharko da zer gertatuko den hurrengo hilabeteetan. Autobiak pribatizatzea mugimendu askea mugatzea da nolabait, eta ezin dugu onartu.

“Autobiak pribatizatzea mugimendu askea mugatzea da nolabait, eta ezin dugu onartu”

Orain dela gutxi Espainiako Gobernuak 2024tik aurrera autobiak erabiltzeagatik kobratzeko asmoa adierazi zuen. Neurriak, nola ez, sekulako eztabaida sortu du. Oposizioko alderdi politikoeak ez dute ontzat eman proposamena eta gidarien gehiengoak ere ez, noski.

Badirudi, Gobernuaren intentzioa autobien kilometro bakoitzeko xentimo bat kobratzea dela. Hasiera batean, ez du ematen diru asko denik, baina istorio hau nahiko ezaguna da. Lehenengo urtean xentimo bat izango da, hurrengoan



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legebiltzarreko Argitaletxea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Programatutako ebakuntzak egiteari ekin diote berriro Osakidetzan, baina egoera oraindik “kezkagarria” dela ohartarazi dute

Apirilaren 26an eten zituen Osakidetzak “premiazkoak ez ziren ebakuntzak”, baina astelehenean jakinarazi zuen egun horretan bertan ekingo ziotela berriro programatutako ebakuntzak egiteari. COVID-19ak asistentzia-eremuan izandako intzidentzia handiagatik eten zituzten ebakuntzak eta hiru astez etenda egon dira. Hiru aste horietan “premiazkoak” ziren ebakuntzak, onkologikoak eta atzeraezinak zirenak bakarrik egiten jardun dira, baina kutsatze kopuruak behera egin duela eta ospitaleetako ohiko jardunera itzultzea erabaki dute, “pixkanaka”. Une honetan, Osakidetza ZIUetako kontingentzia planaren hirugarren egoeran dago, eta egoerak hobera egin duen arren, oraindik ere “kezkagarria” dela ohartarazi dute arduradunek. Astelehenean zabaldu zituzten datuen arabera, Osakidetza ospitale-sareak kritikoen 368 ohe ditu zabalik, eta haietatik %39,6 COVID-aren ondoriozko konplikazioengatik ospitaleratutako pazienteek okupatzen dituzte: 146 ohe. Apirilaren 26an ebakuntzak eten zituztenean 192 ohe zeuden okupatuta, kopuru osoaren %53.

Salbuespeneko espetxe politika amaitzeko bizikleta martxa antolatu du Sarek maiatzaren 30erako

Salbuespeneko espetxe politika bertan behera lagatzeko eta larriki gaixo dauden presoak askatzeko eskatuko du Sarek maiatzaren 30erako antolatu duten bizikleta martxa batekin. “Espetxe politikan pausoak ematen ari badira ere, oraindik, gure herrikidea den Sebas Etxanizek eta Joseba Arregi oñatiarrak salbuespen legediaren neurri zorrotzen menpean jarraitzen dute”, esan dute. Aurten Etxanizek 78 urte beteko ditu, eta Arregik, 75 urte. Etxaniz, etxean dago eskuko telematikorekin eta Arregi Martuteneko espetxean. Oñati eta Elgoibar lotuko ditu bizikleta martxak. 10:00etan irtengo da tropela Oñatiko plazatik eta Elgoibarren bukatuko da martxa, Maalako parkean. Segidan, Kalegoen plazarainoko bidea egingo dute oinez, beraien eskaerak aldarrikatuz. Kalegoen plazan emango diote amaiera ekimenari. Informazio gehiagorako edo izena emateko, ondorengo telefonora deitu behar da: 692 706 011.

Hilaren 28an, bestalde, *Josu Lariz etxera! Salbuespenezko espetxe politikarik ez!* lemapean elkarretaratzea egingo dute 20:00etan, Kalegoen plazan.



Errosario kaleko etxe batek su hartu zuen astelehenean

Suak ikara sortu zuen astelehenean Errosario kalean. Goizeko 10:00ak aldera hartu zuen su Errosario kaleko 6. zenbakian dauden etxebizitzak, hain zuzen ere, 2018an su hartu zuen etxearen alboko eraikinak. Zorionez, etxebizitzita hutsik zegoen. Elgoibarko Udalak eraisketa lanak burutzeko lizentzia emana zien jabeai, behin horiek gauzatura, 4 eta 6 zenbakietako etxebizitzaren berrekitze lanak egiteko. Elgoibarko Udaletik jakinarazi zuten, etxebizitzaren euskarrietan burutzen ari ziren soldadura lanen ondorioz piztu zen sua, eraikina babesteko ipinita zituzten babes neurriek eta teilatua estaltzen zuten olanak su hartu zutelako. Su-itzalgailuak erabilia ez zioten suari indar gehiegirik hartzen laga, eta suhiltzaileek egoera kontrolpean hartu zuten berehala. 10:45 alderako itzalita zuten sua. Inguruko etxebizitzetako bizilagunak irtenarazi zituzten badaezpada, eta Errosario kalea itxi egin zuten suhiltzaileek lan egin zezaten. Udaletik zehaztu zuten kalte materialak bakarrik eragin dituela suak, eta horiek su hartu duen eraikineri mugatu zirela.

Makina-erremintaren sektorean %15rainoko hazkundera espero dute AFMko arduradunek, eta 2019ko mailetara hurbiltzea

Makina-erremintaren fakturazioa %19,65 jaitsi zen 2020an, pandemiak eraginda bereziki. 2020ko itxierari buruzko behin betiko datuak eman ditu AFMk, eta horien arabera, 1.324,12 milioi euroko fakturazioa izan du sektoreak 2020an. Aurreko ekitaldian 1.647,86 milioi euro izan ziren. Esportazioek %22,25 egin zuten behera iaz, 1.006,01 milioira arte; 2019an, 1.293,93 milioi izan ziren. Barne salmentak, berriz, %13,41 jaitsi dira eta eskaerak %23,5 egin dute behera, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. AFMko arduradunek zehaztu dute sektoreak mundu mailan izandako galeren (%19,18) parekoak izan direla hemen goak.

2021erako baikor eta indartsu

Urritik aurrera, baina, eskaera berriak sartzen hasi zirela adierazi du AFMko zuzendari Xabier Ortuetak, eta susperraldi hori mantentzen bada, aurreko sektorea %12 eta 15 artean haztea espero dute, 2019ko mailetara hurbilduz. Sektoreak zutik mantentzea lortu duela adierazi dute AFMko arduradunek eta orain "baikor eta indartsu" daude aurtengo urteak ekarriko duenari



aurre egiteko, baina, aldi berean, "errespetu handia" diote etor daitekeenari. Bigarren hiru hilabetearen lehenaren eskaera mailari eusten bazaio, sektorea sendo haziko dela 2021ean uste dute klusterreko arduradunek. Hori bai, susperraldiak eragin desberdina izango du sektorean, espezializazioaren arabera. Hala, autogintzarako jarduten duten makina-erremintako enpresak sendo ari direla lanean azaldu du Ortuetak eta, sektorea bultzatzen ari dira trengintza eta energia berriztaga-

riak ere. Aldiz, aeronautika sektorerako lanean dihardutenentzako aurrekuspina da bi-hiru urte beharko direla normal hasteko lanean. Makina-erremintaren sektoreko enpresen nazioartekotze maila ere gero eta handiagoa da. Gaur egun, salmenta guztien %76 dira esportazioak. Nazioartekotzearekin lotuta, Txina da orain euskal enpresen lehen herrialdea esportazioetan, Alemania eta AEBen aurretik. Izan ere, lehenago suspertu dira Txinako eta AEBetako ekonomiak.

EITBk iragarri du "euskal Netflix bat" sortuko duela

EITBk plataforma digital handi bat izango duela iragarri du Andoni Aldekoa EITBko zuzendariak, eta esan du 2022an jarriko dutela martxan. Azaldu du ez dela euskara hutsean izango, eta ez dela soilik EITBrena izango. Euskal plataforma bat izango dela adierazi du, eta Euskal Herrian sortzen diren ikus-entzunezko lan guztiak, filmak, dokumentalak eta bestelakoak ikusi ahaliko direla bertan. Plataforma hori "apustu estrategiko eta berritzailea" izango dela esan du Aldekoa: "Euskal Netflix bat garatu nahi dugu, euskal gizarteari eskaini eta biltzeko; halaber, nazioarteko leihotze bat izatea nahi dugu, eta ez soilik EITBren ikus-entzunezko ekoizpena kontsumitzeko aukera eskaintzea, baizik eta baita Euskadin sortzen diren euskal filmak, telesailak, dokumentalak, ikuskizunak eta kontzertuak ere", zehaztu du. Era berean, EITBko zuzendari nagusiak azaldu du gaur egun gazteak Youtube, Instagram, TikTok eta antzerako plataformetan daudela, eta euskarak presentzia txikia duela horietan. Horregatik, EITBk ahalegina egingo du horietan egoteko, "euskaraz bereziki". Aldekoa zera aitortu du: "Ikus-entzunezko kontsumoa asko aldatu da, eta guk hanka aldatu behar dugu". Gogorarazi du euskal gazteek egunean zazpi orduz kontsumitzen dituztela edukiak ordenagailuan.

Arriaga Industrigunea berrurbanizatzeko bigarren fasea hasi dute

azko otsaila eta uztaila bitartean, Arriaga industrigunea berrantolatzeko lehen faseko lanak burutu zituzten, eta orain bigarren faseari ekin diote. Bigarren fase honetako lanak industria guneko behealdeko sarbidearen inguruan egingo dituzte, eta lehen bidegurutzeraino helduko dira, hain zuzen, Térmicos Sarasketa enpresa pareraino eta lehen fasearen amaieraraino.

Eremuko irisgarritasun edota argiteria arazoei irtenbidea eman nahi diete eta egingo diren lanen artean galtzadaren zorua zein espaloiak konpondu, zintarriak berreraiki, euri uren saneamendu sarea zein edateko uren hornidura sarea konpondu eta zazpi argiztapen puntu berri jarriko dituzte.

Lanen aurrekontua 201.453,57 eurokoa da (BEZik gabe) eta lanen exekuzio epea hiru hilabetekoa izango da; horrenbestez, abuztua amaierarako amaituta izatea espero du Udalak.



Hilabete honetan pentsio duinen alde egingo diren mobilizazioetan parte hartzera deitu du Gaurgeroa Duintasunak

Maiatzaren 29an pentsio duinen aldeko mobilizazioak egingo dituzte EAEko hiriburuetan eta Eibarren, eta Elgoibarko Gaurgeroa Duintasuna taldeak Eibarko manifestaziora joateko deia egin die herritarrei. 12:00etan izango da. Horrez gain, Gipuzkoako pentsio-dun talde batek bizikleta martxa bat antolatu du, pentsio duinen alde. Errenteriatik abiatuko da hilaren 24an, eta sei etapa egin ondoren, 29an, iritsiko da Donostiara. Maiatzaren 27an iritsiko da martxa hori Elgoibarrera, eta Maalan egingo diote harrera, 12:00ak aldera. Txirindulariek ondorengo ibilbidea egingo dute herri barruan: Maala, Txarridunako biribilgunea, Uparitzaga Kalea, Pedro Mugurutza, Meliton, Gabriel Krutzelaegi, Ikastola, Maala. Aurrekua dantzatuko diete Maalako parkean, eta segidan, manifestazioa egingo dute Kalegoen plazaraino. Giza Eskubideen parkean ekitaldia egingo dute, eta han bertan bazkalduko dute. 16:00etan jarraituko du bizikleta martxak bere ibilbidea.



Gaurgeroa Duintasunak hiru urtean dihardu pentsio duinen aldeko protestan eta "pozik" daude orain arte lotutako hobekuntzekin: lortu dute besteak beste, pentsioak KPIren arabera eguneratzea, alarguentzat prestazioak eta 52 urtetik gorakoentzat prestazioak. Era berean, pentsio sistema publikoa

izatea egingarri dela babesten dute. Hala ere, Toledoko Itunaren ondorioz, pentsioen murrizketak etorriko direla ohartarazi dute. Bruselara eskatu dute erretiro aurreratua hartzeko baldintzak gogortzeko eta jubilatzeke adina atzeratzeko. Ondorioz, borrokan jarraitzeko unea dela esan dute.

Udaberriko Merkataritza Kanpainako zozketaren berri eman du Mendaroko Udalak, merkataritza eguneko ekintzen barruan



Merkataritza eguna ospatu zuten zapatuan Mendaron. Azoka egin zuten frontoian eta txarangak girotu zuten goiza. Guztira 28 erakusmahai izan ziren azokan: 25 bigarren eskuko produktuak azokaratu zituztenenak eta beste hiru herriko saltokietakoenak: Galle-Tiak, Saint Gerons eta Leire jantzi denda. Era berean, Udalak, udaberriko merkataritza kanpainako sariak ere zozkatu zituen. Tokiko merkataritza eta kontsumoa bultzatzeko eta suspertzeko antolatu zuten zozketa. Herriko hamahiru saltokik parte hartu dute kanpainan: Galle-Tiak, Farmaziak, Leire jantzi denda, Mari Axun, Perosanz, Puxika, Lutximak, Itxasertz, Anton harategia, Coviran, Art Fruit, Saint Gerons eta Morroskillo. Komertzio horietan 15 euro edo gehiagoko erosketak egin dituzten bezeroek tiket bana jaso zuten zozketarako eta zapatuan bertan zabaldu zituen Udalak zenbaki saridunak.

ZENBAKI SARITUAK

Bederatzi sari zozkatu zituen Udalak, eta honako hauek izan dira sari-tuak:

4.566 (Ordezkoa: 0015)
 4.569 (Ordezkoa: 1.636)
 1.693 (Ordezkoa: 3.991)
 2.851 (Ordezkoa: 4.874)
 2.155 (Ordezkoa: 2.732)
 2.399 (Ordezkoa: 3.949)
 4.963 (Ordezkoa: 2.635)
 4.728 (Ordezkoa: 2.706)
 4.854 (Ordezkoa: 3.998)

Udaletik jakinarazi dutenez sariak Udaleko Arreta Zerbitzuan jaso behar dira, txartel sariduna aurkeztuta, eta horretarako azken eguna maiatzaren 30a izango da. Ordezkoen kasuan, tiketa aurkezteko azken eguna ekainaren 15a izango da.

Carmelo Urdangarin ekonomilari, enpresari eta kulturgile debarra hil da, 89 urterekin

Ostiralean hil zen Carmelo Urdangarin, 89 urterekin. Sortzez debarra zen, baina arrasto sakona utzi zuen Debarrena eskualde osoan. Ekonomilaria, enpresaria eta kultur arloko ekintzailea izan da Urdangarin. Peritu-ikasketak eta merkataritza-irakaskuntzarako ikasketak egin zituen, eta zuzendaritza-karguak bete zituen hainbat enpresatan, hala nola: Orbean, Euskadiko Kutxan eta Danobaten. 1997an hartu zuen erretiroa Danobaten. Kutxa eta Lagun Aro entitateetako zuzendaritza-organoetako kidea ere izan zen, bai eta Euskal Meatzaritzaren Museoaren Fundazioaren patronoa ere 2009tik 2014ra bitartean.

Ekintzailea zen, baina ezereen gainera, herrigintzari estuki lotutako gizona. Deban eraiki nahi izan zuten zentral nuklearraren kontra ere aritu zen bere garaian, eta makina bat hitzaldi eman zituen han eta hemen. Kultur munduan ere arrasto handia utzi zuen. Aranzadi Elkartearen, Eusko Ikaskuntzaren eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoaren Fundazioaren partaide ere izan zen, eta hainbat komunikabidetan ere kolaboratu zuen, tartean Euskadi Irratian eta Herri Irratian. Historiarako eta etnografiarako zaletasun handia zeukan, eta eskulangintzari eta garai bateko ofizioei buruzko milaka artikulu eta hogeitik gora liburu idatzi zituen, euretako gehienetan Julen Zabaleta artista elgoibartarra lagun zuela. Zabaletak egin izan ditu haren liburuetako ilustrazio asko eta asko. 2008an Sigma enpresaren historia jaso zuen *Estarta y Ecenarro Sigma* liburuan. Gure Baliok saria ere jaso zuen 2013. urtean, gizarte balioren alorrean egindako ibilbideagatik. Bereziki, enpresa, kultura zein gizarte esparruan gaztetatik erakutsitako lankidetzarako gaitasuna nabarmendu zituen orduan epaimahaiak.



Autobidean panelak jartzzen ari zen hondeamakina bat zubitik zintzilik gelditu zen atzo Basarten

Ezbeharra izan zen atzo goizean Basarten. A8 autobidean zaratzen kontrako panelak jartzeko obretan lanean ari zen hondeamakina bat zubitik zintzilik gelditu zen goizeko 9:30 aldera, San Roke kaletik IMHrako bidearen gainean, hain justu ere, panelak jartzeko obrak babesteko aldamioa jarrita dagoen lekuan bertan. Kalea itxi egin zuten badaezpada.

Joan zen asteen beste ezbehar bat izan zen obra berean, orduko hartan Ermuaranbide kalean. Aldamio zati bat erori zen orduan, eta ordu batzutan itxita izan zuten errepidea, harik eta jausitako zatiak kendu zituzten arte.



Europako intsekturik handiena, Mendaron

Saturnia Pyri Europako tximeleta eta intsekturik handiena da, eta EH Naturak emandako informazioaren arabera, Euskal Herrian nahiko hedatuta dago, baina ez da erraza ikusten, gaueko tximeleta delako. Mendaron aurkitu zuten argazkiko tximeleta hori. Gaueko tximeleta da, eta gauez mugitzen da batez ere. Emeak arrak baino gorputz handiagoa eta trinkoagoa dauka, eta antena bigunak eta lisoak. Arrak antena iletsuak ditu, lodiagoak, orratz itxurakoak. Hegoetan lau begien itxurako irudiak (ozeloak) ditu, hontza baten begien itxurakoak hain justu ere, defentsarako mekanismo bat da, harrapariak hontza batekin konfunditu eta bakean uzteko. 2 edo 3 aste bizi da tximeleta forman.



I. URTEURRENA

Begoña Altuna Leyaristi

2020ko maiatzaren 4an hil zen, 85 urte zituela.

Zure irribarre goxoa eta maitasuna betirako izango dira gure artean.

Etxekoak



I. URTEURRENA

Juan Zinkunegi Iza

2020ko maiatzaren 15ean hil zen, 82 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 23an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.

Beti gure bihotzean





Goian: David Rodriguez, Oihane Garcia, Jon Olivares, Jose Mari Larrañaga, Edurne Lasa, Maria Jesus Otaegi eta Dani Zelaia. Behean: Ibai Leon, Nagore Cid, Aitor Guisasola eta Sara Iriondo. Argazkilaria: Manu Sanchez. Bideo editorea: Lutxi Arregi.

Drama eta tragoak

Koronabirusak bete-betean harrapatu zuen Taupada antzerki taldearen 'Dramatitragoak' zikloa. Estreinaldia zuten egunaren aurretxoan ezarri zuten alarma egoera, eta gizartea geratu egin zen. Etxera bidali gintuzten, ostalaritza eta merkataritza guneak itxi egin zituzten, eta kultur jardura guztiak bertan behera laga. Baina Taupadak ez zuen bere jarduna eten, eta lanean jarraitu zuten. Pandemiak baimendu zuenean berreskuratu zuten jendaurreko dinamika, eta egoera berrira egokituta taularatu dituzte azken obrak. Orain, erakusketa egin dute *Dramatitragoak* zikloaren errepasoa egiteko. Antzerkietan erabili dituzten jantzi, dekorazio, maskara eta bestelako elementuak jarri dituzte ikusgai Kultur Etxean, eta argazki eta bideoak ere bai. Zuzenean ikusteko aukerarik izan ez zutenek, beraz, maiatzaren 28ra arte dute erakusketa bisitatzeko aukera. Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo da, asteleheneetik barikura 18:30etik 20:30era, eta zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara.

- AINHOA ANDONEGI -

A ita Agirre Kultur Kafea zabaltzeaz bat hasi zen Taupada antzerki taldeak *Dramatitragoak* zikloa gauzatzeko. Kultur Kafearen baldintzetako bat zen hilean behin formatu txikiko kultur emanaldiren bat antolatzea, eta horretan lagundu nahi zuen Taupadak: "Kultur Kafea kulturaz bete nahi genuen. Taberna soil bat baino gehiago izatea nahi genuen", esan du Edurne Lasa Taupadako kideak. Udaleko Kultura Sailean aurkeztu zuten beraien proposamena: hilean behin, antzezlan bat eskaintzeko konpromisoa hartu zuten. Kultura Sailak begi onez ikusi zuen Taupadaren proiektua, eta argi berdea eman zion zikloari. Eguenetan izango ziren antzerkiak, pintxo-potearen egunean, eta horregatik jarri

zioten *Dramatitragoak* izena, dramatizazioak trago baten bueltan gozatzea zelako helburua.

luzko martxoan egin behar zuten estreinaldia, baina egun handiaren aurretxoan iritsi zen gurera Covid-19-a, eta bertan behera geratu ziren kultur ekitaldi guztiak. Taupadak, baina, lanean jarraitu zuen: "Ezin ginen elkartu, ezin genuen entse gurik egin... dena geneukan kontra, baina lanean jarraitu genuen", esan du Edurne Lasak. Egoera berrira moldatu ziren, eta egoerarik zailenetan ere, lortu zuten antzerkia bizirik mantentzea. Pedro Mugurutzako eskola zaharrean Udal Musika Bandak erabiltzen zuen lokala utzi zieten, eta musukoak jantzita eta distantziak mantenduz prestatu zituzten obrak.



Egoerak aukera eman zuenean berrekin zioten jendaurrekoari. Irailean estreinatu zuten zikloa, egoera berriak baldintzatuta. "Kultur Kafean 12 mahai genituen bakarrik, eta erreserbatu egin behar zen, gainera. Jendeak ezin zuen zutik egon". Kultur Kafea bera ere, antzerkirako ez dagoela ondo prestatuta esan dute Taupadako kideek, eta eszenatokia antolatzeko zailtasunak izan dituztela adierazi dute. Hala ere, hiru antzezlan egin dituzte bertan, eta gustura geratu dira herritarrek emandako erantzunarekin. Azken obra, *Zinemakopa*, Herriko Antzokira lekualdatu behar izan zuten azken momentuan, eta horrek ere lana handitu zuen: "Gidoia moldatu behar izan genuen, eta eszenatokia bera montatzea ere ez da berdina". Hiru pelikulan oinarritutako obra izan zen: *Cabaret*, *Tacones lejanos* eta *El bolero de Raquel*. Ohiko antzezleez gainera, aktore berriak fitxatu zituzten obra honetarako: Andoni Urbietta, Itxaso Alguacil eta Luis Ines. "Izugarri polita izan zen ikuskizuna! Nik neuk ere gustura antzeztuko nukeen", esan du Edurne Lasak.

ERAKUSKETA

Erakusketak itxiko du *Dramatitragoak* zikloa. Hasiera batean erakusketa bera ere Kultur Kafean bertan egiteko asmoa zuten, baina azkenean Kultur Etxeko erakusketa gelan antolatu dute: "Moldatu egin behar izan dugu erakusketa, argazki gehiago, elementu gehiago, baina oso polita geratu da eta pozik gaude". Mimo handiz prestatutako erakusketa izan da, eta ez zaio detaile txikiarik ere falta: "Antzezlanetan erabili dugun material guztia dago hemen". Jantziak, oholtzako atrezzoak, maskarak, obretako antzerki eta bideoak... Maiatzaren 7an inauguratu zuten erakusketa, eta ez zen gainera edonolako inaugurazioa izan: "Inaugurazio antzeztua egin genuen. Jon Olivaresek eta Aitor Guisasolak egin zuten aurkezpena, eta mundiala izan zen". Maiatzaren 28ra arte egongo da ikusgai erakusketa.

TAUPADA, TAUPAKA

Taupada antzerki taldea osasuntsu dago, sasoi betean, eta



Taupadaren bihotzak taupaka jarraitzen du. Pandemiaren gogorrenak ere ez ditu apaldu Taupakoen ilusioa eta lanean jarraitzeko gogoia. Sormena berezkoa dute, baina une honetan nabarmendu dute sortzaile dabilzala. Ez zaizkie ideiak falta, eta ekainean ekingo diote hurrengo proiektuari. Ondo bidean, urtea amaitu aurretik estreinatzea gustatuko litzaieke.





“Mimo handiz
prestatu dugu
Elgoibarko
kontzertua eta
ilusio handiz goaz”

► EÑAUT ELORRIETA

MUSIKARIA

Ken7 taldea desegin ostean, 2013an ekin zion Eñaut Elorrietak (Gernika, 1975) bakarkako ibilbideari. ‘Deserriko kantak’ izan zen bakarka kaleratu zuen lehen diskoa, eta 2019an ‘Irteerako argiak’ bigarren lana aurkeztu zuen. Covid-19aren pandemia iritsi zen diskoa kaleratu eta berehala, eta horren ondorioz, emanaldiak hainbat formatu desberdinetara moldatu behar izan ditu. Gaur Elgoibarren izango da, hirukote formatuan. Kontzertu berezia izango dela adierazi du, eta sorpresaren bat ere egongo dela iragarri du. 17:30ean izango da emanaldia, Herriko Antzokian.

- AINHOA ANDONEGI -



◆ 2013an hasi zenuen bakarkako ibilbidea. Nolako izan zen Ken7-tik bakarkakorako trantsizioa?

Ken7-rekin hainbat bizipen bizi ostean, baneukan beste bide batzuk urratzeko gogoia eta beharra ere bai, artistikoki eta pertsonalki aurrera egiteko. Ken7-k aukera ikaragarriak eman zizkidan, baina motxila hori azkenerako pisutsua egiten zitzaidan, eta behar nuen bidea egitea motxila hori kenduta. Baina ohituta gaude gehienetan taldeak sortzera eta bakarkako bidea haste horretan deserri moduko batetik pasatu nintzen. Ez zen kasualitatea izan nire lehenengo lanari *Deserriko kantak* jarri izana izena. Deserriaren gaia landu nuen, leku berri batean kokatu nintzen eta hor bidea egitera derrigortuta nengoen. Beldur, zailantza eta kezka askotatik pasatu nintzen, baina oso interesgarria izan zen. Esperientzia berri horrek lagundu zidan nire bidean aurrera egiten.

◆ Ez zara damutzen, beraz, hartutako erabakiaz, ezta?

Hartu ahal nuen erabakirik onena izan dela esango nuke. Orain, distantziatik, garbi ikusten dut. Bidean jarraitzeko ilusio handiz nago, eta hori da, nire ustez, neurgailurik onena. Erronka berriak hartzeko gogotsu nago, eta hori seinale ona da. Oso harro nago egindako ibilbideaz, eta Ken7-k poztasun handiak eman dizkit. Hustu egin nintzen Ken7-rekin. Ehun kantu baino gehiago konposatu nituen Ken7-rekin eta badakit talde hori jende askorengana iritsi zela. Neure sentitzen dut talde hori, eta hainbeste maite dudan talde horrekin erlazionatzea ohorea da. Eñaut Elorrieta moduan nabil orain bakarka, baina Eñaut Ken7-koa ere banaiz. Gauza askoz gehiago ere banaiz, baina bi gauza horiek behintzat oso nireak dira eta ez daukat inolako arazorik horrekin.

◆ ‘Deserriko kantak’ izan zen zure bakarkako lehen lana. Ken7-rekin antzik ez zeukan diskoa egin nahi zenuela esan zenuen.

Bai, denborarekin konturatu naiz baneukala obsesio moduko bat taldearengandik urruntzeko edo bereizteko. Aske izan nahi nuen bide berrian, eta aske izatea lortu dudan arte prozesu bat egin behar izan dut. Lehenengo diskoan nire buruari aitortu nion askatasuna ez nuen askatasun osoz kudeatu. Nolabait esateko, nire buruari justifikatu nahi nion hartutako erabakia. Baina ezinbesteko lana izan da egiten ari naizen bide berri honetan, mugari bat.

◆ Sei urtera etorri zen ‘Irteera argiak’, zure bigarren lana.

Bai, baina tarte horretan gauza asko egin nituen. *Deserriko kantak* lanaren ostean, Ken7-k Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin egin zuen lan bat, eta *Phoenicoperus* diskoa ere atera genuen. Azken hori *Deserriko kantak* diskoarekin pareleloan zihonan. Horrekin batera, disko fisikoan gauzatu ez zen arren, *Harian* proiektua ere martxan jarri nuen. Kanta berriak eta hainbat bertsiok egin nituen lan horretarako eta online dago diskoa. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kabestri boskotearekin ere hainbat emanaldi egin genituen, eta Europan zehar ere eman genituen kontzertu batzuk Labeque ahizpekin. Sei urte izan dira disko batetik bestera, baina ez naiz geldirik egon eta bizipen

guztu horiek eraman naute *Iteera argiak* diskora. Orain arte egin dudak lanik borobilena eta osoena izan da. Diskoa pandemia betean defendatzea tokatu zait, gainera, eta erantzun oso ona izan du. Nire aurreko ibilbide guztiak eraman nau honetara, eta oso-oso pozik nago.

◆ Zeri abestu diozu disko honetan?

Lehen deserria hartu nuen ardatz, eta oraingoan gai sozial eta politiko horietatik gai existentzialagoetara etorri naiz. Saiatu naiz berba arinez, argitasunaren eta iluntasunaren arteko oreka mantentzen. Gai sakonetaz hitz egin dut, baina sakonkerian erori gabe. Gai horietara ertz arinagoetatik iristeko obsesioa izan dut, baina gaia bera fribolizatu gabe. Nire aitaren heriotzak eragin handia izan du diskoan, eta kanta bat berari eskaini diot. Horrez gain, Euskal Herrian ziklo sozial eta politiko aldaketa izan da azken urteetan eta horrek ere eragin du, aita egin izanak ere bai... aldaketa eta bizipen garrantzitsuak izan ditut eta horrek guztiak eragin du disko honen gaietan, eta nik uste dut asmatu dugula. Maitasunaz, laguntasunaz, minaz, heriotzaz, bizitzaz... hitz egiten dut, baina nabarmendu nahi nuke gai horietaz hitz egiteko modua. Gertuko hitzak erabili ditut, ertz arin batetik heldu naiz kantetara.

◆ Diskoa atera eta berehala iritsi zen pandemia eta kultur-gileak moldatu beharra izan duzue ezinbestean. Nola eragin dizu zuri Covid-19ak?

Biran murgilduta geunden, diskoan parte hartu zuten guztiarekin zuzenean aritzeko asmoz, eta pandemiak behartu gaitu lan hau beste formatu batzuetara moldatzen. Etxealdian streaming bidez ere eman nuen kontzertu bat bikote moduan, ETB-rentzat beste streaming bat ere egin genuen hirukote formatuan... Diskoa formatu diferenteetara moldatu behar honek lana aberastu egin duela iruditzen zait. Kontra jarri zaigun hori, bertute moduan ikusita, esan dezaket esperientzia musikal oso aberasgarria izan dela eta ohiko egoera batean ez nukeela horrelakorik bizi izango. Zentzu horretan pozik nago, behartuta izan bada ere, esperientzia berriak bizi ditudalako. Azken batean, jakin egin behar dugu maila guztietan, hau da, maila sozial, politiko edo sanitarioetan ere bai, horrelako krisiak gure alde jartzen eta ikasten, batez ere, hona ekarri gaituzten gauzak berriro ez errepikatzeko.

◆ Eta zein formatutan sentitzen zara gusturen?

Ezingo nuke bat aukeratu; denak dira desberdinak. Bakarbakarik ere eman dut kontzerturen bat eta sentsazio oso onak sentitu izan ditut. Taldekideekin tentsioa eta presioa partekatuta egiten da, eta babestuago sentitzen naiz. Gainera, sekulako musikariak ditut taldean; bai musikalki, bai artistikoki eta bai pertsonalki ere izugarriak dira denak. Formatu guztiek eman didate zerbait, eta niretzat magikoa da ikustea kanta bera nola moldatu daitekeen egoera bakoitzera, ezer galdu gabe. Konpuketan hori asko zaindu dugu, eta saiatu gara formatu des-

berdinetan kantuaren arima mantentzen. Zuzenekoetan hori bizitzea, ikustea jendearekin kanta bat nola iristen zaion dagoen lekuan egonda, apasionantea iruditzen zait.

◆ Ez zara Elgoibarkoa, baina baduzu Elgoibarrekin lotura. Berezia izango da gaurko kontzertua?

Hirukote formatuan joango gara Elgoibarrera. Errepertorio berezia prestatu dugu, eta sorpresaren bat ere egongo da. Mimo handiz prestatu dugu kontzertua, eta ilusio handiz joango gara. Nik sekula ez dut Herriko Antzokian kontzerturik eman; beste ekimen batzuetan parte hartu izan dut, baina gaurkoa izango da lehenengo kontzertua eta gogotsu nago. Berezia izango da. Ni ez naiz bertakoa, baina lotura handia daukat herriarekin eta gertuko jendearen aurrean jotzeak beti ematen dio plus bat emanaldiari.

◆ Getarian bizi zara, inspirazioarako leku aproposa.

Bai, Getarian, mendi inguruan daukat lokal bat eta hor aritzen naiz lanean. Itsaso zalea izan naiz betidanik, eta ez dakit horrek laguntzen didan inspiratzen, baina aitortzen dut bizitzeko leku zoragarria dela. Jende ederraz inguratuta bizi naiz, eta nire pasioa den musikari ahalik eta denbora gehien eskaintzen diot. Ezin dut askoz gehiago eskatu. Dena ez, baina erabaki batzuk behintzat egoki hartu ditut bizitza honetan.

◆ Irakaskuntza laga, eta musikagintzara salto egiteko erabakia hartu zenuen. Hori izan zen ondo hartutako erabakietako bat?

Bai, badira erabaki batzuk harrotasunez aipatzen ditudanak, eta hori da horietako bat. Unibertsitatean bi karrera egin nituen: Fisika eta Ingeniaritza, eta irakasle nenbilen ikastolan. Nire gurasoak ere irakasleak izan ziren ikastolan, eta gustura nenbilen irakasle lanetan. Halako batean hori dena laga eta denbora benetan maite nuenari eskaintzea erabakitzea ez zen erraza izan. Beldurrak, kezka eta bertigoa sentitu nituen. Hasieran eszedentzia eskatu nuen, eta ibili nintzen hanka bat han eta bestea hemen nuela, harik eta pauso definitiboa eman nuen arte. Ausartu nintzen, eta harro nago erabakia hartu izanaz. Beste erabaki askotan ez nuen asmatuko, denok bezala, baina honetan asmatu nuen.

◆ Lagun batek mezu bat eman dit zuretzat. Dio une zailetan zure musikak izugarri lagundu diola. Nola hartzen dituzu horrelako mezuek? Nola kudeatzen duzu fama?

Konposatzeak eta kantatzeak barrua sendatzen didate. Bibratu egiten dut, bizitzarekin edo unibertsoarekin. Kanta horiek argitaratu ostean, jendearen *feedback* hori iristen zaidanean eta esaten didatenean nire musikak laguntzen diela, sekulako poza hartzen dut. Horrelako berbak entzuteak izugarri poztzen naute. Iristen zait jendearen babesa sare sozialetan, kontzertuetan, kalean eta eskertzekoa da. Askok uste dute kantari batek kontzertuetan eman egiten duela, baina nik eman beste jaso egiten dut publikoarengandik. Zorionekoa sentitzen naiz.

“Gertuko hitzak erabili ditut; ertz arin batetik heldu naiz kantetara”



- ★ Kotoizko izara organikoak
- ★ Ehun iraunkorrak
- ★ Kotoi organikoa, leuna, naturala, transpiragarria eta hipoalergenikoa

GOTS ziurtagiriarekin



Mila esker
zuen konfiantzagatik!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



AURREMATRIKULA MAIATZAK 31 TIK EKAINAK 18 RA

ERDI MAILA

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA
IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA
MENDEKOTASUN EGOERAN
DAUDEN PERTSONEI ARRETA
SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA
ERIZAINTZAREN LAGUNTZA
KARROZERIA

M M Meka
Lanbide Eskola

GOI MAILA

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
AUTOMOZIOA
HAUR-HEZKUNTZA
METAL ERAIKUNTZAK
GIZARTERATZEA (ESKAITZA PARTIALA)
DIETETIKA (BERRIA)
GENERO BERTINTASUNA
SUSTATZEA (BERRIA)

ESPEZIALIZAZIO PROGRAMA

IBILGAILU HIBRIDO ETA ELEKTRIKOEN MANTENUA (BERRIA)



ELKUNDEA
GOBIERNO VASCO

Camino de Kulturen
Arreagaite Kalea, 21
20870 Elgoibar
(Gipuzkoa)

Tf: 943 74 80 19
bulegoa@meka-elgoibar.eus
www.meka-elgoibar.eus

Arreagaite Kalea, 21
20870 Elgoibar
(Gipuzkoa)

Fp
LANBIDE



GREMIOEN GIDA

Aroztegiak
Erreformak
Igeltseritza
Pintura
Leihoak
Iturgintza
Elektrizitatea

Gidan agertzearen onurak!

21€
hilero

21 €ren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian!

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleho ikusiena.

4.885
de astero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 744 112 / 688 769 657

Alta Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



EXPRESS ESKAITZAK!

BOSCH
WAU28S42ES
GARBIGAILUA

549 €



- 1400 R.P.M..
- 8 kg karga.
- Garbigailua Etena + karga autodosisazioarekin, sartzea ahaztu zaizun arroparentzat.
- I-Bi teknologia: Garbigarri eta leungarriaren dosifikazio automatikoa, arroparen zikinkeria mailaren kargaren arabera.
- %38 aurreztuko duzu xaboitan, bai eta 10 litro ur ere ziklo bakoitzeko.
- Eraginkortasun handiena erosotasun handienarekin.
- Ecosilence motorra: eraginkorra eta isila. 10 urteko bermea.
- Display Led Touch: erabilera errazagoa Touch tekien bidez Kontrola pantailan.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



Zuen keax, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Karakaterako bidean obretako hondakinak daude botata: "Badira aste batzuk Karakaterako bidean, ur-depositoko bidea hartu eta berehala, eraikuntza eta eraispen-hondakinak daudela bide bazterrean. Legediari erreparatuta (112/2012 dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena), sortutako hondakinak geldoak direnez, hondakindegira eraman behar dira derrigorrez. Gainera, ekoizleak eraikuntza- eta eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dizkio Udalari. Beraz, Udalak ere kontrolatu egin beharko litzuke era honetako ekintzak". BARRENEk Hirigintza Sailera jo du, eta hauxe izan da jasotako erantzuna: "Udalak bai eskatzen du fidantza eta hondakinak ondo kudeatzearen egiaztagiria, baina horrek ez du esan nahi obra klandestino bateko hondakinak nonbait botata agertu ezin daitezkeenik, ilegalki botata".



Benetako segurtasun neurriak hartu behar dira autopistako obran: "Egunero pasatu behar izaten dugu Ermuaranbide kaletik, autopistako zubi azpitik, eta benetan, segurtasuna bermatzeko hartu dituzten neurriak txapuza bat dira. Atzo ere makina edo garabiren bat autopistatik zintzilik geratu zen Basarte inguruan, eta ia beheko errepidera erori zen. Leku horretatik jende asko pasatzen da egunero, oinez, autoz, autobusez... noiz hartuko dituzte benetako neurriak obra horretan? Istripuren bat gertatzen denean? Norbait hiltzen denean? Ez dakit Udalaren ardura den, edo Foru Aldundiarena, baina dagokionak har ditzala eraginkorrak diren segurtasun neurriak obra horretan, beranduegi izan baino lehen".

Zakarrontziak behar dira herrigunean: "Maalatik Merkatu plazara arte ez dago zakarrontzirik San Frantzisko kalean. Txakurrarekin irten ginen, eta haren kaka jaso genuen plastiko batean, baina kale osoan ez genuen zakarrontzi bat bera ere aurkitu kaka botatzeko. Eskertuko genuke kale horretan zakarrontzi gehiago jartzea".

Maala aldetik Herri Eskolara igogailua jartzeko aukerarik ikusten al du Udalak?: "Maalatik Herri Eskolara jende asko igotzen da egunero. Bere garaian, Udalak bazeukan asmoa ingurune horretako enpresak kendu eta ingurua berrantolatatzeko, baina denbora aurrera doa eta oraindik ez dira ezertan hasi. Iruditzen zaigu Gaztetxea dagoen inguru horretatik Herri Eskolara badagoela aukera igogailua egiteko, eta zalantzarik gabe asko hobetuko litzatekeela Herri Eskolarako irisgarritasuna". Udaleko Hirigintza arduradunak esan du baietz, Udalak aurreikusita duela obra hori. "Urazandiberriko eremuaren garapenarekin batera aurreikusita dago bertan igogailua jartzea auzora, eta bereziki, Herri Eskolarako ibilbidera, irisgarritasuna hobetzeko. Baina esan bezala, hau eremuaren garapenarekin batera doan ekintza bat da".

Sototik dator hotsa

Hilabeteetako etenaren ondotik, zuzenekoak antolatzeari ekin diote berriro Sinuöse Kultur Elkartekoek. Gaur iluntzerako The Renegados talde bizkaitarra gonbidatu dute Kultur Etxeko Sotora. 20:00etan hasiko da kontzertua, eta gehienez 30 lagunentzako lekua izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Sarrerak, berriz, sotoko atean bertan erosi beharko dira.

- AINARA ARGOITIA -

Iban Urizar, Patxi Zabaleta, Ander Mujika eta Jon Gurrutxaga. Arg.: Sinuöse.



Bueltan dira sinuösetarrak. Gogo betez datoz, gainera, hilabeteetako etenaren ondoren. Hala zabaldu dute sare sozialetan, *kultura segurua da* hashtagarekin. Gaur iluntzerako, The Renegados talde bizkaitarra gonbidatu dute Sotora eta aurreratu dute kontzertu gehiago ere izango direla udako oporraldia aurretik. "Hiru-lau bat egin nahi genituen, baina aurrenekoa duela hamabost bat egun izan behar zen, eta atzertuta goaz. Baina pare bat etorriko dira". Bueltan datoz, baina ez nahiko luketen baldintzetan. "30 lagunentzako lekua izango dugu gaur Sotoan, eta jarrita, elkarren arteko distantziak zainduta eta musukoak jantzita entzun beharko dute kontzertua Sotora datozenek". Ez ditu kopurua horren mugatua izateak bakarrik penatzen, aitortu dutelako bestela ere ez dituztela jende masa handiak mugitzen, baina kezka bat badute, Sinuösek antolatutako saioetan sekula ez delako inor kanpoan gelditu eta beldur direlako egoera honetan dei-efektu halako bat sortzea [Kokoteraino eta Ehun Kiloren kontzertua izan zen jendetsuena. 180 sarrera saldu zituzten, baina batez beste 50 bat lagun batu ohi dituzte]. Entzule fidelak dituzte, eta ez lukete nahi haiek lekurik gabe uzterik. Gauza gehiago ere badira, hala ere. "Esaterako, kontzertua ez da gure ohiko ordutegian izango. 23:00etan programatu ohi ditugu guk kontzertuak, eta

gaur 20:00etan hasiko da. Hori da daukaguna, baina, eta ezer baino gehiago bada. Hala ere, ez genuke honetara ohitu nahi", nabarmendu dute. Luze egin zaie ia urtebeteko etena. Ez dira geldi egon, ezingo luketelako, baina ez dute betiko maiztasunez batzerik ere izan, ez eta ohiko dinamikari eusterik ere, eta aitortu dute "koipeztatze falta halako bat" igartzen dutela. Sinuösek urtean 10-12 bat kontzertu antolatu ohi ditu, hilabete bakoitzeko bat, eta horrez gain, otsailean, inauteri bueltan, kontzertu berezia prestatu ohi dute Iban Urizar eta Patxi Zabaletak. Iraileko zita ere berezia izan ohi da. Sotoko Hotsak egitasmoa antolatzen dute irailerako eta kontzertuak izan ohi dira 2 edo 3 egunez Sotoan, eta abenduan, inguruko lagunekin proiektuak aurkezteko joera ere badute. Pandemiagatik zuzenekoak etenda izan dituzte, baina zer eskainia bazutela iritzita, iazko ekainean Alarma Sessions antolatu zuten. Zuzeneko lau bideo enkargatu zizkieten beste hainbeste artista laguni, eta halaxe zabaldu zituzten Cabezafuego, Joseba Irazoki, Joseba B Lenoir eta Hatxeren grabazioak ekaineko lau astelehenean. Gero, otsailean, streaming bidez eman zuten kontzertua Patxi Zabaletak eta Iban Urizarrek. 1997an ekin zioten Zabaletak eta Iban Urizarrek inauterietan musika saio bereziak emateari, Malape tabernan. Herriko Antzokiko eta Toletxe ta-

bernako oholtzetara ere igo ziren gero egitasmo honekin, baina Kultur Etxeko Sotoko abaroan jardun dira azkeneko urteetan. 25. kontzertua behar zuena, baina, Internetez zabaldu behar izan zuten. Ez zen gauza bera, baina ezer baino gehiago bazen. Bestelakotan ere aritu ziren, barruko harra "entretentzeko". *Minutu bat "jolasa"* jarri zuten martxan Sinuöseko lau taldekideek euren artean. Minutu bateko tracka sortu eta elkarri bidaltzen zioten gero, gainerako taldekideek beste minutu bateko ekarpena egin ziezaioten hasierako grabazio hari. Eta modu horretan hainbat kantu sortu dituzte.

Zuzenekoetan dute jarrita, baina, gogo. Hasi dira, eta argi utzi dute Sinuöseren ohiko dinamikari eusteko asmoz hasi dutela bidea. Ez dute zehaztuta zenbat proposamen izango diren, ezta zeintzuk izango diren ere, baina, "beti bezala", estilo eta forma askotariko kontzertuak izango direla nabarmendu dute. "Garbi daukagu gure espazioa ez duela inork beteko eta badagokigula herri honetan bestela programatu ez direnak programatzea". Askatasun hori badute. "Negozio bat daukazunean ahalik eta jende gehien batzeko proposamenak behar izaten dira, baina guk, zorionez, nahi duguna ekar genezake. Guk geuk ere apenas ezagutzen ditugun taldeak ere ekarri izan ditugu, baina beti asmatu dugu", zehaztu dute. Behar handia dagoela uste dute, eta igarri dute kontzertuak ematera irten direnetan. "Jendea nekatuta dago, eta oso sentibera. Kontzertuetan igarri dugu. Gogoratzen naiz lehenengotan entzuleak eserita, distantziara jarrita eta musukoekin ikusten nituenean sekulako inpresioa egiten zidala, baina egia da eserita ere egin daitekeela dantza eta hunkitzen dela jendea", esan du Ander Mujikak. "Bai. Amorantek erakutsi digu jarrita ere egin daitekeela dantza. Eta bai, Zea Maysek Herriko Antzokian eman zuen kontzertuan sortu zen giroa ere itzela izan zen, adibidez. Dantzarako txarrak garenak ere soltatzen gara maskara jantzita. Maskarak ezkutuko egingo bagintu moduan da!", gehitu du Patxi Zabaletak.

Baldintzak direnak izanda ere, musikak badu zirrara sortzeko eta ileak lazteko ahal hori, baina egia da eskaintza asko murriztu dela pandemiagatik. "Formatu txikikoak, akustikoak eta ustez eserita entzuteko egokiagoak direnak ari dira programatzen, baina rock gogorra edo metala egiten dutenak ahaztuta daude. Akats handia da hori. Askotan, automatikoki pentsatzen dugu 'halako kontzertua ez da arratsalde baterako egokia' edo 'ez da jarrita ikustekoa' edo... Baina, zergatik ez?", galdetu du Ander Mujikak. Azkoitiko Matadeixen izan diren kon-

zertu batzuk eta Joseba Irazoki eta lagunak Irungo Amaia Kultur Etxean emandako kontzertua ekarri ditu gogora. "Izugarrria izan zen" Eta gehitu du. "Anestesiaren kontzertu bat ere zein gustura entzungo genukeen jarrita izanda ere!".

Musikariak dira sinuösetarrak, eta nor bere proiektuarekin hara-hona dabiz, kontzertuz kontzertu [Ander Mujika Anarirekin eta Testurarekin, Iban Urizar Amorante bakarkako bere proiektuarekin eta Jon Gurrutxaga Urbil Artolarekin bikoia osatuta]. "Bikustiken bi lagun gara gitarrarekin, eta formato horretako kontzertuak programatzen dira, baina gurea moduko talde metaleroagoek [Fractality taldea du Zabaletak] zaila dute. Zirkuito ofizialetan ere apenas programatzen dira, baina orain are gutxiago", bota du Zabaletak. Lekurik ez dutenei lekua egitea. Horixe da kontzertuak programatzeko euren buruei jarrita duten baldintzetako bat: hori, eta jakina, herrirako bereziak diren proposamenak ekartzea, beti ere euren galbahea pasatuta.

THE RENEGADOS

Highlights eta Landslide proiektuetan ibilitako Miguel Moral musikari bilbotarraren proiektua da eta lau lagunek osatzen dute taldea Pintxo (baxua, Negra Calaverakoa), Hal (gitarra eta Grand Matterren ibilitakoa) eta Charlie (bateria jolea. Turbofuckersen ibilitakoa). 70eko hamarkadako hard rocka egiten dute. Boogiea, gitarra bikoitzak, garapen musikal luzeak, lelo itsaskorrak, riff sendoak eta psikodelia dosi bat dira talde honek egiten duen musikaren ezaugarriak. *Dead Man's Hand* EPa aurkeztu zuten 2019an, eta Kosta Sarietan diskorik onenaren saria lortu zuten. Orain dela gutxi *Barro y orgullo* abestia plazaratu dute.

Noiz: Gaur. 20:00etan, Kultur Etxeko Sotoan. Sarrerak bertan salduko dituzte.



▶ MIKEL ALBERDI

HISTORIALARIA

Historialaria eta Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoko Dokumentazio arduraduna da Mikel Alberdi Sagardia eta bihar 'Txapela XIX. mendean' izenburuko hitzaldia emango du Makina Erremin-taren Museoa, 12:00etan hasita. Hitzaldia euskaraz izango da, eta pandemia egoerako segurtasun neurriak zaintzeko, hitzaldira joan nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute, 943 748 456 telefono zenbakira deituta edota museoa@museoa.eus helbidera idatzita. Sarrerak 4 euro balio ditu.

- AINARA ARGOITIA -



♦ Nolatan aztertu duzu euskal txapelaren historia?

Duela hiru bat urte, Boinas Elozegi Tolosako enpresak erakusketa antolatu zuen bere 150. urtemugaren harira, eta erakusketa hartarako, txapelaren inguruko azterketa historikoa egin genuen guk, Ormaiztegiko Zumalakarregi museokook. Eta han konturatu ginen XIX. mende hasieran apenas ikusten dela txapelik hemen, Hego Euskal Herrian, eta XIX. mende bukaeran txapela besterik ez dela ikusten eta buruko hori euskal identitatearen ikurtzat hartzen dela bazterretan. Jakin badakigu, baina, txapela ez zela Euskal Herrian sortu. Hala diote behinik behin teoria nagusiek. Beraz, euskaldunok betidanik txapela jantzi dugula pentsatze hori topikoa baino ez da. Badakigu XIX. mendea aurretik ere ezagutzen zutela hemen txapela, XVIII. mendeko irudi batzuetan ere agertzen delako, baina gauza puntualak ziren horiek.

♦ Eta geurea ez bada, nondik ekarritakoa da?

Uste da Piriniotatik sartu zela Euskal Herrira txapela, Erronkaritik. Atzo, kasualitatez, Biarnoko Olorongo (Frantzia) txapel fabrika bati buruzko dokumentala ikusi nuen telebistan. Saio frantsesa zen eta ozen aldarrikatzen zuten euskal txapela izenez ezagutzen dena izatez hangoa dela, Piriniotakoa. Eta gure tesian ere hori defendatzen dugu, handik ekarria dugula txapela.

♦ XIX. mende hasieran apenas erabiltzen zela diozu, baina mende bukaerarako oso zabaldua zegoela. Zerk eragin zuen zabalakunde hori?

Gerrek, hein handi batean. Kontua da Lehenengo Karlistadan Tomas Zumalakarregi karlisten buruzagi militarrek erabaki zuela txapela eramango zutela bere soldaduek. Ordura arte talde gerillari sakabanatuak zirenak armada egin zituen Zumalakarregik eta soldadu zein ofizialen uniformeetan txertatu zuen txapela. Bultzada handia izan zen hori. Baina bestalde, euskal liberalak ere txapela jantzi zuten gerrarako, txapel gorria.

♦ Txapel gorria ez al da ba karlisten ikurra?

Bai, gaur egun txapel gorriak karlistekin lotzen ditugu, baina batez ere XX. mendekoa da lotura hori. Egia da kontu horrek nahasketarako bide handia eman duela eta zaila dela uste hori zu-

“XIX. mende hasieran apenas ikusten zen txapelik Hego Euskal Herrian”

zentzea, baina gerra hasi zenean, artean oso txapel gutxi ikusten zirenean, euskal liberalak jantzen zituzten txapel gorriak eta beren talde armatuari *chapelgorri* izena eman zioten. Badauzkagu britainiarrek-eta XIX. mendean egindako grabatu batzuk eta haietan ondo bereizten dute: *chapelgorri* dira liberalak, eta *chapelchuri* (txapel zuria), karlistak. Egia da gerrak irautu zuten denboran karlistek kolore guztietako txapelak erabili zituztela eta ez zegoela kolore nagusi bat haiek identifikatzen zituena. Gipuzkoar karlista askok zuria erabiltzen zuten, esaterako, baina bazeuden berdeak, urdinak... erabiltzen zituztenak ere. Txapel gorri izenak, hala ere, euskal liberalak definitzen ditu. Urretxun bazen Gaspar Jauregi gerillari famatu bat, ezizenez *artzaina* (1791-1844), Napoleonen kontra borrokatu zena eta euskal liberalen armada (txapel gorriak) sortu zuena.

♦ Soldaduek bai, baina gainerako herritarrek ere erabiltzen zuten txapela?

Bai, poliki-poliki joan zen zabalduz hori. Gerrarako jantzen zuten herriko gazteek, eta pentsatzekoa da hortik zabalduko zela gainerakoetara. Badago grabatu bat oso polita dena eta guk erakusketan jarri genuena, *Aldeanos de la Merindad de Durango* izenekoa, zeinean agure bat eta gazte bat ageri diren. Agureak



montera dauka jantzita, eta gazteak, txapela. 1846ko grabatua da eta horrek erakusten du txapela iritsia zela gazteen artera ordurako. Beste gauza askotan bezala, belaunaldi berriek sortuko zuten moda eta mende bukaerarako moda hori denera zabaldu zuten.

♦ **Gerrak aztertzen dituzue zuek. Zerk bestek lagundu zuten txapelaren erabilera zabalitzen?**

Esaterako, XVIII. mende bukaeran, Diputazioek beren Polizia larroak sortu zituzten: Gipuzkoan eta Bizkaian, Mikeleteak, eta Araban, Miñoiak. Sortu eta desagertu ibili ziren urteetan, oso garestia zitzaielako aldundiei Polizia hori mantentzea, baina 1844. urtetik aurrera indarra hartzen hasiko dira Mikeleteak, eta sendotze horrekin bateratsu, txapela erabiltzen hasiko dira. Afrikako Gerra izan zen txapelaren historian beste mugari bat. 1859 eta 1860 artean eman zen gerra. Urte haietan foruak indarrean zeuden oraindik, eta horrenbestez, hiru probintzietako euskaldunak ez zuten Espainiako Armadan parte hartzen. Jarrera hori nahikoa kritikatu izan zen garaiko hedabideetan eta oso gaizki ikusia Espainian. Egoeraz ohartuta, Diputazioek komenigarritzat jo zuten gerra talde bat sortzea: Euskal Tertzioak. 3.000 soldaduk osatu zituzten Euskal Tertzioak; ondo ordaindutako boluntarioak ziren soldaduak. Afrikako Gerran, karlistek eta liberalek, biek, parte hartu zuten, eta etsai beraren kontra jardun ziren. Eta denek txapela eramaten zuten buruan. Oso sinbolikoa da, baina, katalanek barretina jantzi zuten eta euskaldunak, txapela. Horrek ere izango du zerikusirik euskaldunak txapelarekin lotze horrekin. Afrikako Gerrak bultzada handia eman zion beraz txapelari, eta gero etorri zen Bigarren Karlistada. Aipagarria da, era berean, azkeneko gerra hori piztu aurretioxan, urtebete aurretik gutxigora-behera, zabaldu zuela Antonio Elosegik txapel fabrika Tolosan, gaur egun bere izenez ezagutzen duguna. Antonio karlista zen eta seguraski behar bat ikusiko zuen, txapel fabrika sortzeko. Kalkulatzen da 68.000 txapel egitera ailegatu zirela. Baina erabateko zabalakundea Bigarren Karlistada ondorenean iritsi zen. Bigarren Karlistadan denek jantziko dute txapela, Carlos VII.a erregearengandik hasita [Lehenengo Karlistadan erregegaiak ez zuen txapelik jantzi]. Gerra horretan liberalen alde egingo dute Mikeleteak eta horiek ere jarraituko dute txapela erabiltzen. Eta hortik aurrera, XIX. mende bukaeratik aurrera, txapelak agertuko zaizkigu irudi guztietan.

♦ **Armada osoek erabili zuten txapela gerran Elosegiren fabrika**

“Uste da Piriniotatik sartu zela Euskal Herrira txapela, Erronkaritik”

sortu aurretik ere. Non ekoizten zituzten horrenbeste txapel?

Egia esan, ez dakigu. Ez dugu ezagutzen fabrikarik, baina egon, egongo ziren, urrutira gabe. Hori bai, eskuz egiten zituzten, Elosegiren fabrika zabaldua gero ere eskuz josten zituztelako. Pentsatzen dugu josten errazak zirelako erabakiko zutela

karlistek txapela sartzea uniformeetan. Ez dugu ahaztu behar garaiko beste armadak sekulako burukoak erabiltzen zituztela eta haien antzekoak egitea baino errazagoa izango zela txapelak jostea. Gaztelaniako ‘*que se te ve el plumero*’ esaldiak ere kapela haiei egiten die erreferentzia, Espainiako Armadako soldaduek sekulako kapelatzarrak jantzen zituztelako eta gainean luma bana eramaten zutelako.

♦ **Munduko hainbat hizkuntzatan txapelari erreferentzia egiteko moduak agerian uzten du, baina, txapela euskal identitatearekin lotzen dela beste kultura batzuetan ere. Zergatik?**

Bai, hala da hori ere. Frantsesez *beret basque* esaten zaio eta ingelesez *basque berret*, esaterako, baina badiotsut frantsesek eurek *beret basque* esan arren beti aldarrikatzen dutela txapela hangoa dela. Guk, aldiz, beti pentsatu izan dugu oso geurea den zerbaite dela txapela, baina Espainian bertan ere sekulako erabilera izan du. Egia esan ez dakigu zergatik lotzen duten gurekin Europa osoan erabili denean, baina baliteke gerrekin lotura izatea. Gerren kontakizuna munduan zehar zabalitzen da, eta horrekin batera, irudiak ere bai, eta beharbada horrek balio izan du txapela eta euskalduna irudia erakitzeko.

♦ **Eta gaur egun, non erabiltzen da bereziki?**

Garai batean baino gutxiago erabiltzen da, baina Elosegi fabrikakoek esana digutenez, batez ere esportatzeko ekoizten dituzte txapelak. Eta ulertzekoa da, munduan armada askoren uniformearen parte delako gaur txapela.



1933ko argazkia. Sokatira saioa Elgoibarko Kalegoen plazan. Arg.: Indalecio Ojanguren.

Gimnasta elgoibartarrek emaitza onak eskuratu dituzte Gipuzkoako Txapelketan

Gimnasia erritmikoan ere itzuli dira aurrez aurreko lehiara, pandemiagatik urte eta erdiko etenaldia egin ostean. Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten joan den asteburuan, Tolosako Uzturpe pilotalekuan, eta emaitza onak eskuratu zituzten amateur mailan parte hartu zuten hiru gimnasta elgoibartarrek: Uxue Etxeberria, Nora Mujika eta Jhoselin Padilla. Taldekako lehian, Eibarko Ipuruua taldearekin lehiatu ziren hiru gimnasta elgoibartarrak, jubeniletako B mailan. Podiumera igotzeko atarian gelditu ziren, laugarren postuan sailkatu baitziren. Bakarkako saioetan ere parte hartu zuten. Bikoteak osatuz lehiatu ziren, eta emaitza politak eskuratu zituzten. Uxue Etxeberria elgoibartarrak eta Nidia Olosolo eibartarrak osatutako bikoteak bigarren postua eskuratu zuen. Modalitate honetan mazak eta pilota dira lehiatzeko erabiltzen dituzten tresnak. Etxeberriak mazekin egin zuen bere ariketa eta Olosolok pilotarekin. Lortu zuten bigarren postuari esker, datorren denboraldian jubenilen A mailan arituko dira Etxeberria eta Olosolo, lehen bi sailkatuentzako saria baitzen hori. Nora Mujika eta Jhoselin Padilla gimnasta elgoibartarrek osatutako bikotea laugarren postuan sailkatu zen. Mazekin aritu zen Padilla eta pilotarekin Mujika.



Maite Maiorak bigarren egin du Espainiako Kopako bigarren proban, Miranda de Ebron

Apirilean Sevillan jokatu zuten lehenengo probaren ostean, 2021eko Espainiako Mendi Lasterketan Kopako bigarren proba puntuagarria jokatu zuten domekan, Miranda de Ebron (Burgos, Espainia), 35 kilometroko mendi lasterketa. Emakumezkoetan Patricia Pinedo andaluziarra izan zen azkarrena. Hiru ordu, 22 minutu eta 43 segundotan osatu zuen proba. 12 minutu-tik gorako aldea atera zion bigarren egin zuen Maite Maiorari (Lizarpe Mendi Kluba). Maiorak 3 ordu, 35



minutu eta 18 segundoko denbora egin zuen. Beatriz Sanchez Alonso sailkatu zen hirugarren postuan (03:43:23). Espainiako Kopako lehen proba puntuagarrian hirugarren postua eskuratu zuen Maiorak, Peñon Xtrem mendi lasterketan, Sevillan. Eta orain lortu duen bigarren postuari esker, 166 puntu ditu sailkapen nagusian, eta bigarren postuan dago. Patricia Pineda dago lehen postuan, 188 punturekin. Gizonetzkoetan euskal selekzioa ordezkatu zuen Asier Larruzea Fernandez gailendu zen Burgosko lasterketan, 03:00:03ko denborarekin. Ander Barrenetxeak ere euskal selekzioaren elastikoarekin egin zuen saltaka, eta 18. egin zuen (03:10:20).

Hernanik eta Haundik bihar jokatu dute koronabirusagatik atzeratutako partida

Haundik eta Hernanik final-laurdenetako kanporaketako itzulerakoa jokatu behar zuten aurreko zapatuan, hilak 15, Hernaniko Zubipe futbol zelaian, baina lehia bertan behera utzi zuten jokalaria batek positibo eman zuelako. Gipuzkoako Futbol Federazioak neurketa astebate atzeratzea erabaki zuen eta bihar, hilak 22, jokatu dute. Mintxetan jokatu zuten joanekoan 0-2 irabazi zuen Hernanik. Kanporaketako irabazleak Zarautz edo Eibar izango du aurkari finalerdietan.



Aimar Alarcia irabazi du Mendaro Herria txirrindularitza Sari Nagusia



Mendaro Herria Sari Nagusia kadeteen txirrindularitza proba jokatu zuten domekan, Mendaron. Hogeita bost bat urte dira Mendaron azkenekoz kadeteen lasterketa antolatzen zutela. Garai hartan, herriko hiru txirrindulari lehiatzen ziren maila horretan: Jurdan Ezenarro, Iñigo Lazkano eta Ander Zulaika. Geroztik, jubenilena antolatu izan du Mendaroko Txirrindulari Elkarteak, eta aurten, estreinakoz, antolatu dute Mendaro Herria Sari Nagusia, Udaren babesarekin. Parte-hartzea handia izan da estreinako aldia. Guztira 28 taldetako 198 txirrindularik parte hartu zuten, eta tartean ziren Elgoibarko Lagun Taldeako lau txirrindulari: Aitor Arranz Garcia, Eneko Ortega Larrañaga, Marcos Fernandez Irigoien eta Haritz Esnaola Ondarra. Helmugaratzen lehenengoa Donosti Berriko Aimar Alarcia Quintano izan zen, 1:24:11 ko denborarekin. Suministros Zadorrako Guzman Grecco Hitateguy izan zen bigarrena eta Quesos Albeniz taldeko Mikel Regil Fernandezek egin zuen hirugarren. Taldekako saria Donosti Berrik jaso zuen. Elgoibarko Lagun Taldeatik Haritz Esnaolak egin zuen denborarik onena. 36. egin zuen sailkapen nagusian txirrindulari mendaroarrak [Estreinako urtea du aurten txirrindularitzan]. Hasi eta amaitu Kurutz Gain industrialdean egin zen lasterketa, eta bertan egin zuten sari banaketa ekitaldia ere.

Jurdan Arakistain azpitxapeldun, Euskal Pilota Egokituko Sari Nagusian

Euskal Pilota Egokituko Sari Nagusiaren finalak jokatu zituzten maiatzaren 16an, Getariako Sahatsaga kiroldegian, eta adimen urritasuna dutenen mailakoan lehiatu zen Jurdan Arakistain. Iraitz Huegun izan zuen bikote eta Eneko Sargamendi eta Xabier Aizkorreta aurkari. Arakistainek eta Huegunek partida txukuna egin zuten arren, ezin izan dute txapela jantzi; 25 eta 20 galdu zuten neurtuta.



Iñigo Lariz eta Iñaki Gorosabel sailkapen nagusiko goi aldean ailegatu dira Green Series BTT txapelketaren erdira

Green Series mendi bizikletako txapelketarako laugarren proba puntuagarria jokatu zuten maiatzaren 9an, Zallan. Gobike taldeko txirrindulariak aurreneko postuetan sailkatu ziren oraingoan ere. Iñigo Larizek laugarren egin zuen, Master 30 kategorian; eta, Iñaki Gorosabelek 7. postua eskuratu zuen Master 50 mailan. Zortzi probek osatzen dute Green Series XCO txapelketa, eta hurrengoa, bosgarrena, lezaman jokatu dute domeka honetan, maiatzaren 23an. Txapelketaren ekuadorrera iritsita, sailkapen nagusiko hirugarren postuan dago Iñaki Gorosabel, bere adin tartekoen artean, 530 punturekin. 630 ditu liderrak, Jesus Angel Espadak. Lariz bosgarren postuan ageri da Master 30 kategoriako sailkapen nagusian, 480 punturekin. 700 puntu ditu lehen postuan dagoen Iñaki Carrok.



Bertan Bilbol:

Espero ez den norbait aurkitzean edota ahotan daukagun pertsona agertzen denean esaten da.

Elgoibarko 130 bat ikaslek hartu dute parte EusLiderrak egitasmoan



DBHko 3. mailan ikasten diharduten 130 ikasle inguruk hartu dute parte Elgoibarren *EusLiderrak* izeneko egitasmoan, eta, orain, saio praktikoetan diseinatu dituzten ekintzak garatzen hasi dira bi euslider talde. EusLiderrak egitasmoaren helburua da gazteen arteko hizkuntza ohiturak aldatzea eta euskararen erabilera informala bultzatzea, modu atsegin eta dibertigarrian. Elgoibar ikastolak, Elgoibarko BHI institutuak eta Elgoibarko Udalak, Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzarekin elkarlanean, joan den ikasturtean martxan jarritako eusLiderrak egitasmoari jarraipena eman diote aurten, eta bigarren fasea gauzatu dute. Helburua DBH3ko ikasleen artean euskararen erabilera informala sustatzea izan da. Elgoibarko Institutuan, Covid-19ak eragindako egoera dela-eta, bertako ardura-dunekin adostuta, ikasturte bukaeran egin ohi den Ekintza Soziala ez egitea erabaki dute. Elgoibar Ikastolan saioak on-line eman dituzte, eta Ekintza Soziala kalean egitea ezinezkoa denez, Ikastolan bertan egingo dute. Bi euslider taldek datorren ikasturtean ere euslider izaten jarraitzeko nahia adierazi dute, eta hori pozgarria izan da antolatzaileentzat.

Gazteentzako Komunikazio Udalekuak antolatu dituzte Goienak eta Mondragon Unibertsitateak

Komunikazio Udaleku Irekiak (KUI) antolatu dituzte, lehen aldiz, Goiena Komunikazio Taldeak eta Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio graduak DBH-4ko eta Batxilergoko lehen mailako gazteentzat. Aste-bete iraungo dute eta goizez egingo dira, Mondragon Unibertsitateak Aretxabaletan duen Komunikazio campusean. Bi txanda egingo dituzte, astelehenetik ostiralera. Lehena, uztailaren 5etik 9ra eta, bigarrena, 12tik 16ra; biak ala biak, 09:00etatik 13:30era. Udalekuen helburua izango da gazteak modu kritiko, praktiko eta dibertigarrian hurbiltzea komunikazioaren mundura. Horretarako, besteak beste, honako gai hauek jorratuko dituzte: kamera aurrean nola jarri, fotokazetaritza, youtuber izateko gakoak, podcastak nola egin, benetako albisteak eta faltsuak nola identifikatu... Izena emateko www.goiena.eus/bereziak/udalekuak atarian sartu behar da. Informazio gehiagorako komunikazioudalekuak@gmail.com helbide elektronikora idatzi edo 600 04 66 89 telefonora deitu daiteke.

Mendaroko Ameikutz musika eskolan izena emateko epea zabalik dago

Datorren ikasturterako matrikulazio epea zabalik dago Mendaroko Ameikutz musika eskolan. 4 urtetik gorako edonork parte hartu dezake Musika Tailerrean. Bertan, Musika hizkuntza eta abesbatzetan parte hartzeko aukera ere izango dute, bai eta musika instrumentuak jotzen ikasteko aukera zabala ere: akordeoia, pianoa, txistua, bateria, biolina, trikitixa, gitarra... Harremanetarako iameikutz@gmail.com helbidera idatzi edo ondorengo telefonotara deitu daiteke: 619 306 493 / 943 254 275

Santana jaiak antolatzeko jai batzordearen bilera, gaur Mendaron

Mendaroko Udalak Santa Ana jaietako Jai Batzordearen bilera antolatu du gaurko. Arratsaldeko 19:00etan egingo dute bilera, Lagun Betikoak elkartearen lokal zurian. Udalak herritarrak gonbidatu ditu jaietarako ekarpenak egitera eta bileran parte-hartzera. Covid-19a dela eta, aforo mugatua izango du batzarrak, eta segurtasun neurri oro bermatuko dutela azaldu dute arduradunek.

Ipuin kontalaria, martitzenean, Elgoibarko Udal Liburutegian

Martitzenean, maiatzaren 25ean, ipuin kontalari saioa izango da Elgoibarko Gotzon Garate Udal Liburutegian. Maite Franco ipuin kontalariak *Mundipurdiko ipuinak* kontatuko ditu. Bi saio emango ditu: lehenengoa, LH1eko ikasleentzat, 16:30ean, eta ondoren, LH2 eta LH3ko umeentzako.

"Taldean egindako lan bat da: Snake jokua animaziozko lana. Proiektu honetan, plastilina egindako sugari bizitza eman diogu Stopmotion teknikaren bitartez. Fruta desberdinak janz handitzen doa sugea, gero eta zailagoa izanik oholean jarraitzea. Animazioaren teknika ikasi ondoren, materiala sortu eta argazki sesioa egin dugu: Azkenik, argazkien eta soinuaren muntaia postprodukzioan egiteko. Bideoa Usue Egiak egin du, Egur arte tailerreko irakasleak. Bideoa, instagramen: barrenaldizkaria kontuan.

Artistak: **Aimar Arakistain**, **Ibai Bartolome**, **Ekain Bastida**, **Lur Bengoetxea**,
Elur Esnaola, **Enara Martinez** eta **Alaitz Pascual**.



LANA.....

Eskaerak

Lan bila nabil, ordutegi malgua daukat.

☎ 632 915 336

Umeak zaintzeko prest nago arratsaldeetan eta asteburuetan. ☎ 688 883 624

Garbiketa lanak egiteko prest nago: etxeak, portalak, bulegoak...

☎ 612 202 116

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut.

☎ 696 550 356 / 653 863 482

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.

☎ 643 440 462

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan. Zainketa soziosanitariorako titulazioa daukat.

☎ 632 157 852

Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Ordutegi malgua.

☎ 617 571 210

Neska euskalduna eskaintzen da ekainetik abuztura haurrak zaintzeko. LH-n klase partikularrak ere emango nituzke (Elgoibarren edo Mendaron). Berehala hasteko aukera, eta ordutegi malgua.

☎ 630 915 031

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Urte askotako esperientzia eta erreferentzia onak ditut.

☎ 696 550 356 / 653 863 482

Eskaintzak

Pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko eta mendekotasun egoeran dagoen emakume bat zaintzeko. Titulo soziosanitariarioa eta esperientzia baloratuko dira. Goizez lan egiteko.

☎ 689 276 122

Jangelarako zerbitzari euskalduna behar da Elgoibarko taberna batean.

☎ 943 741 230

BESTELAKOAK.....

Lur-zorua solgai Azkaraten. 20.000 metro koadro (Bi hektarea). Sarbide oso ona eta itxitura. Malda oso txikia du.

☎ 645 048 110

GARAJEAK.....

Garaje marraduna saltzen dut Pista Beltzean.

☎ 696 550 356 / 653 863 482

ETXEBIZITZA.....

Etxe bat hartuko nuke alokairuan.

☎ 660 458 756

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€.

Iragarkia irertratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkia irertratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Euzko Administrazioaren Erakunde Kontabilak



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure atarian, fatxada konpondu nahi dugu, eta beheko lokalen jabeek uko egiten diote gastu horretan parte hartzeari. Esan dute Estatutuek atariko gastuetan parte hartzetik salbuesten dituztela, eta, gainera, beraiei dagokien fatxadaren zatia egoera onean dagoela diote. Jakin nahi nuke fatxada konpontzearen ondoriozko gastuetan parte hartzera behartu daitezkeen.

Printzipioz, eta arau orokor gisa, indarrean dagoen araudiaren arabera, pisu eta lokalen jabe guztiek higiezinaren gastu komunak ordaindu behar dituzte, salbu eta estatutuetan berariaz salbuesita badaude edo Batzordearen erabakiz hala ezarrita badago.

Beraz, kontsultatutako kasuan, eta higiezinaren dokumentazio guztia aztertu ondoren, estatutu-klausulak lokalak solairuetarako eskaileretarako edo sarreretarako ordainketa komun batzuetatik soilik salbuesten ditu, eta horiek duten interpretazio murriztailearen ondorioz, uste dut ezin dela zabaldu eraikinaren fatxada orokorra pintatu eta mantentzera.


ONDORIOA: Beheko solairuko lokalen jabeek gastuak ordaintzen lagundu beharko dute, fatxadaren zatia beren iritziz egoera onean dagoen arren.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 📞 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Ekaitz**, 6 urte bete dituzulako. Muxu erraldoi bat familiakoen partez. Maite zaitugu.



Zorionak, **Iñigo!** Datorren astean 6 urte! Ondo pasatu eguna! Muxu handi bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Teo**, maiatzaren 12an 9 urte bete zenituelako. Baita zuri ere, **Sabin**, gaur 12 urte egin dituzulako. Muxu asko familiakoen partez.



Zorionak, **bikote!** 65 urtez, egunez egun, elkar maitatuz. Ederki ospatuko dugu! Biba zuek!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

LANBIDE HEZIKETA 2021-22

Aurrematrikulatzeko moduak :

1- Presentziala; etorri zaitez!

2- Ikasgunean

3- Web bidez
Web: www.uni.eus

AURRE MATRIKULA

**MAIATZAREN 31tik
EKAINAREN 18ra**



	<input type="checkbox"/> MERKATARITZA JARDUERAK	<input type="checkbox"/> ERDI MAILAKO TEKNIKARIA
	<input type="checkbox"/> NAZIOARTEKO MERKATARITZA	<input type="checkbox"/> GOI MAILAKO TEKNIKARIA
	<input type="checkbox"/> GARRAIO ETA LOGISTIKA	<input checked="" type="checkbox"/> ESPEZIALIZAZIOA
	<input type="checkbox"/> ADMINISTRAZIO KUDEAKETA	IKASTETXE PUBLIKO DOAKOA
	<input type="checkbox"/> ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK + ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ESKAINITZA PARTZIALA ARRATSALDEZ	
	<input type="checkbox"/> EGOKITZAPEN FISIKOA	
	<input type="checkbox"/> GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA	
	<input type="checkbox"/> MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK	
	<input type="checkbox"/> PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA	
	<input type="checkbox"/> SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA	
	<input type="checkbox"/> WEB APLIKAZIOEN GARAPENA	
	<input type="checkbox"/> ZIBERSEGURTASUNA INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN INGURUNEETAN	

21 BARIKUA

17:30 Haurrentzako kontzertua. Udal Ludotekak, Atxutxiamaikak eta Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta. Idorben.

17:30 Kontzertua: Eñaut Elorrieta. Herriko Antzokian.

19:00 Elkarretaratzea: Palestiaren alde. Kalegoen plazan.

24 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabeakuntza tailerra: 'Sexu aniztasuna zahartzaroan'. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

25 MARTITZENA

16:30 Ipuin kontalaria: 'Mundipurdiko ipuinak', Maite Francoren eskutik. LH1eko ikasleentzat, Udal Liburutegian.

17:15 Ipuin kontalaria: 'Mundipurdiko ipuinak', Maite Francoren eskutik. LH2ko eta LH3ko ikasleentzat, Udal Liburutegian.

18:00 Literatura tailerra: Homeroren 'La odisea'. Haizeak antolatuta, Udal Liburutegian.

26 EGUAZTENA

19:00 Epeletan literatura tailerra: Kar-mele Jaioren 'Aitaren etxea'. Udal Liburutegian.

28 BARIKUA

18:00 Musika eskolako dantza jaialdia, Olaizaga kiroldegian.

20:00 Elkarretaratzea. 'Josu Lariz, etxera! Salbuezpeneko espetxe politikaririk ez!'. Sarek deituta, Kalegoen plazan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Bajo las estrellas en París'

22 zapatua: 19:00

23 domeka: 19:00

24 astelehena: 19:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

21 BARIKUA	22 ZAPATUA	23 DOMEKA	24 ASTELEHENA	25 MARTITZENA	26 EGUAZTENA	27 EGUENA	28 BARIKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez *Yudego	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauz: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912



Gipuzkoako diputatu nagusia, Elkar Ekin Lanean estrategia aurkezten.

Elkar Ekin Lanean, bazterkeriatik lanera

Gipuzkoako Foru Aldundiak Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du; datozen hiru urteetan, bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du xede

Bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonak gizarteratu eta lan munduan txertatzea helburu duen Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa sustatu nahi da egitasmo honekin. "Nazioartean eredu gara lan babestuan eta ekonomia sozialean, hirugarren sektore sozia-

leko enpresei eta kooperatibei esker, hurrenez hurren. Hori xe bera lortu behar dugu enplegu inklusiboan" adierazi du Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak.

Tresna nagusia, lana
Horretarako, 16 lan lerro eta 30 neurri zehatzetan banatutako estrategia landu du Foru Aldundiak, Etorkizuna Eraikit

programaren babespean eta Eusko Jaurlaritzaren 2030 Enpleguaren Euskal Estrategiarekin bat eginez. Lana izango da tresna nagusia "bizitza duina" bermatzeko, "bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko" eta "bizitza proiektu bat berdintasunez garatu ahal izateko", dio diputatu nagusiak. Datozen hiru urteetan, 3.500 lanpostu berriren sortzea da helburua.

Pandemia aurreko datuen arabera, lurraldean ia 37.000 lagun daude pobrezia larrian eta, gainera, egoera horretan kronifikatzeko arriskua dago. Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gain, kualifikazio baxua dutenak, langabezian kronifikatu diren pertsonak, 45 urte baino gehiagorekin langabezian daudenak nahiz biolentzia matxistaren biktimak kontuan izango ditu, bereziki, Elkar Ekin Lanean estrategiak.

Dirulaguntza deialdi berria

Estrategiaren hedapenerako, datozen hiru urte hauetan 36,6 milioi euro bideratzea aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horietatik, ia 3 milioiko dirulaguntza deialdia onartu berri da -iaz 1,2 milioiko zuzkidura izan zuen-.

Hiru alorretan eragingo du, horiei lotutako sei helburu nagusi lortze aldera. Lehenik,

lanean diharduten erakundeen eta eragileen sistema trinkotzeko ahalegina egingo du, lankidetzazko gobernantza eredu bat garatuz. Bigarrenik, enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa zabaltzeko aukerak indartzea izango du helburu. Horretarako, lanpostu berriak eratzeko esfortzuaz gain, inklusioaren ikuspegia landuko duten enpresa berrien sorrera sustatuko da. Hirugarrenik, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen aukera berdintasunez lan munduan txertatzeko aukera izan dezaten eragingo du estrategia honek, Eusko Jaurlaritzarekin eta Lanbiderekin elkarlanean.

Hori egiteko, 16 lan lerro eta 30 neurri konkretu ezarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ondorioz, 4.000 lagunengana iristea aurreikusten da, 2.500 lagunengana formakuntza bideratu eta 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatu. Gainera, 2023rako lurraldean hamabost gizarteratze enpresa edukitzea ezarri dute xede.

BAZTERKERIA ARRISKUAN EDO EGOERAN DAUDENENTZAKO 3.500 LANPOSTU SORTU NAHI DITUZTE

Elkar Ekinen onuradunak

CAROLINA KALEXXA

"Edozer gauza egiteko ezgaitua nengoen. Agorafobia sentitzen nuen. Lan barik nengoen. Kalexkan, sentsazio ugari sentitu nuen proiektuarekin lehen harremana izan nuenean. Inoiz halakorik egin barik nengoen; ez entxufe bat aldatu, ez egurra landu... Azken egunean, gertatutakoaz hausnartzen, ohartu nintzen ahaztu nuela noiz desagertu zen agorafobia. Gainera, urte batek bezala disfrutatu nuen; pozarren".

JOSEPH SUTARGI

"22 urte ditut. Jatorriz, marokoarra. Donostian daramatzat hiru urte. Egun, Ategorrietan bizi naiz, harrera etxe baten. Oso egun zailak pasa ditut, kale gorrian. Orain, goizez, tailerrera joaten naiz; arratsaldean, EPARA, ikastera. Roberto da nire monitorea. Hark erakusten digu arotzeria, egurra nola landu... Ofizio bat ikasita irtetea gustatuko litzaidake, lana aurkitu, familiari lagundu...".

JUAN ANTONIO EMAUS

"Extremaduran jaiotzen. Baina Arrasaten hezi naiz. Kale gorrian nintzen eta aukera izan nuenean, Emausen eman nuen izena. Ikasteroa egin nuen, ondoren, lan egiteko aukerarekin, eta hemen nago, lanean. Oso pozik nago. Bizitzeko gogoia eman dit honek. Nire lanean gustatzen zaidana da gauzak konpontzea, margotzea, bonbilla bat jartzea...".

VANESA EDE EMAKTIVA

"Une oso gogorak pasa ditut. Inoiz ez dut lortu kontratu batekin lan egitea. Nahiz eta urteak zaintzen aritu naizen, garbiketan praktikak egin ditut... Orain nago Emaktivan. Espero dut positibotasuna lortzea, aukera gehiago izatea bizitzan aurrera egiteko, alabarentzako erreferente izatea, amak lan ondo egiten duela ikus dezala. Eta jendeak nigan sinistu dezala".

STOCK LIKIDAZIOA km.0

KIA
NAIA CAR



**XCEED PHEV
TECH ORANGE 22.900 €**



**TOURER PHEV
TECH LUNAR 22.850 €**



**KIA eNIRO DRIVE (100kw)
22.900 €**



**NIRO PHEV EMOTION
PACK LUXURY 26.000 €**



**NIRO EMOTION
RUNWAY RED 22.000 €**



**STONIC 100CV MHEV
GT-LINE 18.900 €**



**STONIC DRIVE
DCT NEGRO 18.500 €**



**SPORTAGE 1.6 CRDI 115CV
CONCEPT - 21.800 €**



**PICANTO CONCEPT
ASTRO GREY 10.500 €**



**PRO CEED GT LINE
PACK PREMIUM 24.900 €**



**CEED 5P. 120CV T-GDI
CONCEPT 15.900 €**



**CARENS 1.6 GDI 132CV
DRIVE 5P. 14.800 €**

KIA
NAIA CAR

 **Apalategi, 1 EIBAR**

 **943 707 033** 